OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

# 2022KO MARTXOAREN 17an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

# ACTA DEL PLENO ORDINARIO CELEBRADO EL 17 DE MARZO DE 2022.

**Olaberrian, 2022ko martxoaren 17an, arratsaldeko 18:00ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira alkatea den Jokin Garmendia Asurabarrena eta Nerea Castaño Irazola, (O.E.O), Maider Agirre Mugika (O.E.O), Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O) , Elixabet Canales Segurola (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU) y Pedro José Jauregui García (EH-BILDU) zinegotziak.**

**En Olaberria, a 17 de marzo de 2022, siendo las 18:00 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena y l@s concejales, Nerea Castaño Irazola, (O.E.O), Maider Agirre Mugika (O.E.O), Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O) , Elixabet Canales Segurola (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU) y Pedro José Jauregui García (EH-BILDU).**

**Bertan dago eta fede ematen du Iñaki Alonso Antolin Idazkari Kontu-hartzaileak.**

**Asiste y da fe del acto el Secretario-Interventor Iñaki Alonso Antolin.**

**Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren,** Udalbatzak gai-zerrendako lehen gaia aztertzeari ekin dio.

**Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria** se pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

**AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

**APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES.**

- 2022ko urtarrilaren 27an ospatutako Ohiko Osoko Bilkurari dagokion Akta.
- 2022ko otsailaren 23an ospatutako Ezohiko Osoko Bilkurari dagokion Akta.

- Acta correspondiente al Pleno Ordinario de 27 de enero de 2022.
- Acta correspondiente al Pleno Extraordinario de 23 de febrero de 2022.

Bozketa egin ondoren, akta hauek aho batez onartu dira.

Tras efectuar la votación, estas actas resultan aprobadas por unanimidad.

**ALKATETZAKO GAIAK**

**TEMAS DE ALCALDÍA**

**Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 8/2022tik 53/2022 bitartera.

**Dar cuenta de los Decretos de Alcaldía.**

El Sr. Alcalde informa de que se dio cuenta en la pasada comisión informativa de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 8/2022 al 53/2022.

## OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK

## HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES

**3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.**

Hauek dira Osoko Bilkurara aurkezten diren fakturak, bere onarpenerako:

**Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.**

Estas son las facturas que se presentan al Pleno para su aprobación:

| ZKIA | IZENA | AZALPENA | KOPURUA |
|---|---|---|---|
| 1 | AMAIA MENDOZA. | TIRO ZELAIA LUR KUTSATUA | 4.670,60€ |
| 2 | GUREAK BERDEA | LORAZAINTZA OTSAILA | 4.104,36€ |
| 3 | ISURKI S.L. | UR SAREKO AZTERLANA | 4.477,00€ |
| 4 | LIMPIEZAS ABANDO | GARBIKETA OTSAILA | 5.541,72€ |
| 5 | SASOI S.L. | HIRIGUNEKO ESPALOIA | 47.540,46€ |
| 6 | GIPUZKOAKO FORU ALD. | KUDEAKETA KOSTUA | 4.009,85€ |

Sei fakturako zerrenda hau onartzeko proposamena bozkatu da, eta gehiengo osoz onartu da, O.E.O. udal taldeko bost zinegotzien aldeko botoekin eta EH-BILDU taldeko bi zinegotzien abstentzioarekin.

Se procede a la votación de la propuesta de aprobación de esta relación de seis facturas, resultando aprobadas por mayoría absoluta, con el voto favorable de los cinco concejales del grupo municipal O.E.O. y la abstención de los dos concejales del grupo EH-BILDU.

**Diruzaintzaren egoera: informazioa.**

Udal-kideei, 2022ko martxoaren 3ri dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira **4.513.037,52 euro** ditu.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

**Situación de tesorería: información.**

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 3 de marzo de 2.022.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **4.513.037,52 euros.**

Los corporativos quedan al corriente.

**3/2022 kredituak aldatzeko espedientea (kredituak eranstea) onarpena.**

Joan zen batzorde informatzailean udal-kideei, prestatutako kreditu aldaketaren proposamenaren inguruan informazioa eman zitzaien:

**Aprobación del expediente de modificación de créditos 3/2022 (incorporación de créditos).**

En la pasada comisión informativa se informó a los corporativos a cerca de la propuesta de modificación de créditos que se formula:

| Kod. | Gastuen partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| b | 1 0000.601.172.00.01 2021 | LUR KUTSATUEN BERRESKURAPENA | 188.000,00 |
| b | 1 0000.226.334.00.06 2021 | KULTUR EKINTZAK | 7.308,40 |
| b | 1 0000.226.337.10.06 2021 | JUBILATUEN EKINTZAK | 287,04 |
| b | 1 0000.227.151.01.07 2021 | APAREJADOREEN ZERBITZUAK | 1.500,17 |
| b | 1 0000.227.165.00.99 2021 | ARGITERIKO MANTENIMENDUA | 546,52 |
| b | 1 0000.227.920.00.07 2021 | ZERBITZU PRESTAKUNTZA | 1.114,41 |
| b | 1 0000.481.172.00.01 2021 | INGURUMENEKO DIRULAGUNTZAK | 662,98 |
| b | 1 0000.481.323.00.01 2021 | HERRI ESKOLAKO GURASO ELKARTEA | 4.000,00 |
| b | 1 0000.622.333.00.02 2021 | KASKOKO ERABILERA ANITZEKO LOKALA PASSI | 452.575,33 |
| b | 1 0000.226.172.00.01 2021 | INGURUMEN EKINTZAK | 840,22 |
| b | 1 0000.226.231.50.01 2021 | BERDINTASUNA | 6.000,00 |

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| b | 1 0000.226.335.00.01 2021 | EUSKARAKO EKINTZAK | 1.400,00 |
| b | 1 0000.227.162.10.01 2021 | SASIETA - BILKETA (%69) | 892,52 |
| b | 1 0000.227.162.20.01 2021 | SASIETA - SOLIDOEN KUDEAKETA (%5) | 64,70 |
| b | 1 0000.227.162.30.01 2021 | SASIETA: TRATAMENDUA (%26) | 336,31 |
| b | 1 0000.481.230.00.01 2020 | HIRUGARREN MUNDURAKO LAGUNTZAK | 1.015,85 |
| b | 1 0000.481.230.00.01 2021 | HIRUGARREN MUNDURAKO LAGUNTZAK | 4.702,58 |
| b | 1 0000.600.172.11.01 2021 | LANDA LURSAILAK EROSTEA | 19.856,27 |
| b | 1 0000.601.153.20.02 2021 | IHURREKO TRANSFORMAZIO ZENTROA | 7.190,44 |
| b | 1 0000.601.153.20.03 2021 | IHURREKO AUZOKO OBRAK 2021 | 289.651,35 |
| b | 1 0000.601.153.21.04 2015 | IHURRE AUZOKO AZPIEGITURAK | 46.064,16 |
| b | 1 0000.601.153.30.01 2021 | HERRI BIDE | 734,72 |
| b | 1 0000.601.153.30.03 2021 | ESPALOIAK | 89.555,30 |
| b | 1 0000.601.161.00.01 2021 | UR SAREAREN IKERKETA | 21.578,02 |
| b | 1 0000.601.165.00.01 2021 | LED ARGITERIA | 10.120,72 |
| b | 1 0000.623.153.40.03 2021 | IBILGAILU ELEKTRIKO | 11.851,21 |
| b | 1 0000.623.172.00.02 2021 | EGUZKI PANELAK | 6.893,20 |
| b | 1 0000.627.151.00.01 2021 | LANDALURRA KATASTROKO ERREBISIOA | 49.947,75 |
| b | 1 0000.622.430.00.01 2021 | IHURREKO OSTATUA | 48.165,29 |
| b | 1 0000.210.459.00.01 2021 | AZPIEGITURETAKO MANTENIM. | 7.456,67 |
| b | 1 0000.210.459.00.01 2020 | AZPIEGITURETAKO MANTENIM. | 1.433,85 |
| | | | |
| | | **TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA** | **1.281.745,98** |

| Kod. | Sarreren partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| b | 2 0000.870.000.00.02 2022 | DIRUZAINTZAKO GERAKINA-FINANTZ.LOTURA | 194.204,80 |
| a | 2 0000.870.000.00.01 2022 | DIRUZAINTZAKO GERAKINA - GASTU OROKOR | 1.087.541,18 |
| | | | |
| | | **FINANTZAKETA GUZTIRA** | **1.281.745,98** |

Hori ikusita eta ados egonik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

En vista de la misma y encontrandola conforme, este Ayuntamiento Pleno acuerda por unanimidad:

BAKARRA: Onarpena ematea 3/2022 zenbakia duen Kreditu Aldaketa Espedienteari, kreditu txertaketa modalitatean, Udalaren 2022ko aurrekontuaren barruan.

- **Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren hasierako onarpena.**

Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen 11/1989 Foru Arauak, uztailaren 5ekoak, 16/1989 Foru Arauak, uztailaren 5ekoak, eta hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga aldatzen duen martxoaren 28ko 2/2017 Foru Dekretu-Arauak aurreikusten dutenaren arabera, Udal honek hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga ezartzeko eta eskatzeko ahalmena du, dagokion ordenantzan xedatutakoari jarraituz.

Osoko Bilkurari aurkeztu zaio zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalaren proposamena, eta aldeko irizpena eman du Batzordeak.

Hori guztia ikusita, Udalbatzak honako hau erabaki du aho batez:

**Lehenengoa.-** Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala hasieran onestea. Obra bera dagokion espedientean.

**Bigarrena.-** Hartutako erabakiak eta horretarako osatu den espedientea jendaurrean jartzen dira,

ÚNICO: Aprobar el Expediente de Modificación de Créditos, nº 3/2022 en la modalidad de incorporación de créditos, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2022.

- **Aprobación inicial de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.**

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico, en la Norma Foral 16/1989, de 5 de julio y el Decreto Foral-Norma 2/2017, de 28 de marzo, por el que se modifica el impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana tiene competencia para establecer y exigir el Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de naturaleza urbana con arreglo a lo dispuesto en la Ordenanza pertinente.

Se presenta al Pleno la propuesta de Ordenanza fiscal reguladora de este impuesto que ha sido dictaminada de forma favorable en Comisión.

En vista de todo ello, este Ayuntamiento Pleno acuerda por unanimidad lo siguiente:

**Primero.-** Aprobar incialmente la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana. La misma obra en el expediente correspondiente.

**Segundo.-** De conformidad con lo dispuesto en el artículo 16.1 de la Norma

Gipuzkoako Ondasun Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araueko 16.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkia jarriz, guzti hori ondoko arauei jarraituz:

*a) Dokumentu horiek erakutsiko diren lekua:* Udal Idazkaritza.

*b) Aztertzeko eta, kasua balitz, erreklamazioak egiteko epea:* 30 egun baliodun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

*c) Erreklamatzeko legitimatuak daudenak:* uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araueko 17. artikuluan aipatzen dituenak.

*d) Aurkezteko lekua:* Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorrean zuzenean edo legez araututako lekuetan.

*e) Erreklamazioa aurkezten zaion organoa:* Udal Batzarra.

Behin erreklamazio eta iradokizunak egiteko arauzko epea igarotakoan, erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez bada, erabakiak behin betikoak joko dira akordio berriak hartu beharrik gabe.

- **Herrigunean Passivhaus ziurtagiria duen erabilera anitzeko zuzkidura-eraikin bat eraikitzeko obra-kontratua lizitatzeko**

Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de los Bienes Locales de Gipuzkoa, se someten a información pública los acuerdos adoptados y el expediente instruido al efecto, mediante inserción de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, todo ello de acuerdo con las siguientes:

*a) Lugar de exposición de estos documentos:* Secretaría Municipal.

*b) Plazo de examen y, en su caso, de reclamaciones:* 30 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

c) Los legitimados para reclamar a los que se refiere el artículo 17 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio.

*d) Lugar de presentación:* entrada del Ayuntamiento en el Registro General directamente o en los lugares legalmente regulados.

*e) Órgano ante el que se presenta la reclamación:* Pleno Municipal.

Transcurrido el plazo reglamentario para formular reclamaciones y sugerencias sin que éstas se hayan presentado, las decisiones se entenderán definitivas sin necesidad de adoptar nuevos acuerdos.

- **Aprobación de la convocatoria de licitación del contrato de obra para la construccion de un edificio dotacional multiu-**

**deialdia eta baldintza ekonomiko-administratiboen pleguaren onarpena.**

Jarraian, Soroa Arquitectos S.L.U.k idatzitako eta aurreko Osoko Bilkuran onartutako Herrigunean Passivhaus ziurtagiria duen erabilera anitzeko zuzkidura-eraikin bat eraikitzeko obra proiektuaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Era berean, proiektu honetan jasotako obren kontratuaren esleipena arautuko duen klausula ekonomiko administratiboen pleguaren proposamenaren berri eman zaio, udal honetako zerbitzu juridikoek egina. Proposamen horren aldeko irizpena eman zuen martxoaren 9an egindako Informazio Batzordeak.

Kontratu honen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Kontratuaren CPV kodea: 45212000-6.
- Obrak egiteko epea: 8 hilabete.
- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 1.031.985,18 eurokoa da (BEZik gabe), eta 1.248.702,07 eurokoa (BEZaren % 21 barne).
- Kontratua prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleituko da, eta hainbat esleipen-irizpideren arabera egingo da. Balorazioa 100 punturen gainean egingo da:

- Proiektua aztertzea (15 puntu), lan programa (5 puntu) eta obra plana (5 puntu).

- Prezioa:

Prezioak 70 puntu arteko puntuazioa izango

**sos con certificación passivhaus en el A.U. 1 Herrigunea y del Pliego de condiciones económico-administrativas.**

Seguidamente se da cuenta al Pleno de que el Proyecto de construcción de un edificio dotacional multiusos con certificación passivhaus en el A.U. 1 Herrigunea redactado por Soroa Arquitectos S.L.U fue aprobado en sesión plenaria anterior.
Asimismo se da cuenta de la propuesta de Pliego de cláusulas económico administrativas que ha de regir la adjudicación del contrato de las obras recogidas en este Proyecto, elaborado por los servicios jurídicos de este Ayuntamiento. Esta propuesta ha sido dictaminada de forma favorable en la Comisión informativa realizada el 9 de marzo.

Las características principales de este contrato son las siguientes:

- Código CPV del contrato: 45212000-6.
- Plazo de ejecución de las obras: 8 meses.
- El presupuesto base de licitación asciende a 1.031.985,18 euros (excluido el IVA), y 1.248.702,07 euros (incluido el 21% de IVA).
- El contrato se adjudicará por procedimiento abierto simplificado, y se realizará atendiendo a una pluralidad de criterios de adjudicación, siendo esta su valoración, sobre un total de 100 puntos:

- Estudio del proyecto (15 puntos) , programa de trabajo (5 puntos) y plan de obra (5 puntos).

- Precio:

El precio puntuará hasta 70 puntos. La

du. Eskaintzarik onuragarrienari 70 puntu emango zaizkio, eta gainerako eskaintzei alderantzizko proportzioa emango zaie, formula honen arabera:

70 x eskaintza onuragarriena/baloratu beharreko eskaintza = eskaintzaren puntuazioa.

- Berme-epea:

- 1. aukera: berme-epea: urte 1:0 puntu.
- 2. aukera: 2 urteko berme-epea: 2 puntu.
- 3. aukera: 2 urteko berme-epea: 3 puntu.
- 4. aukera: 4 urteko berme-epea: 4 puntu.
- 5. aukera: 5 urteko berme-epea: 5 puntu.

Proposamenak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Lizitazioan parte hartzeko, azken 5 urteetan Passivhaus ziurtagiria lortu duen lizitatzaileak gutxienez obra bat egin duela egiaztatu beharko da edo Passivehouse Tradeperson titulazioa duen obra-buru bat atxiki ahal izango zaio obrari. Pertsona horrek gutxienez 2 urteko antzinatasuna izan beharko du enpresa lizitatzailean..

Horiek horrela, Udalbatzak honako hau erabaki du gehiengo osoz, O.E.O. udal taldeko bost zinegotzien aldeko botoekin eta EH-BILDU taldeko bi zinegotzien abstentzioarekin:

<u>LEHENENGOA</u>: Soroa Arquitectos S.L.U.k Herrigunean Passivhaus ziurtagiria duen

oferta más ventajosa será valorada con 70 puntos y el resto de las ofertas serán valoradas mediante una proporción inversa, de acuerdo con la siguiente fórmula:

70 x oferta más ventajosa / oferta a valorar = puntuación de la oferta.

- Plazo de garantía:

- Opción 1: Plazo de garantía 1 año: 0 puntos.
- Opción 2: Plazo de garantía de 2 años: 2 puntos.
- Opción 3: Plazo de garantía de 3 años: 3 puntos.
- Opción 4: Plazo de garantía de 4 años: 4 puntos.
- Opción 5: Plazo de garantía de 5 años: 5 puntos.

El plazo para la presentación de proposiciones será de un mes a contar desde el día siguiente a la publicación en el perfil de contratante del anuncio de licitación. Para poder tomar parte será requisito imprescindible la acreditación de que al menos una obra haya sido ejecutada por el licitador habiendo obtenido el certificado passivhaus, en los últimos 5 años o la adscripción a la obra de un jefe de obra que posea la titulación de Passivehouse Tradeperson. Dicha persona deberá contar con una antigüedad en la empresa licitadora de al menos 2 años

En vista de todo ello, este Ayuntamiento Pleno acuerda por mayoría absoluta, con el voto favorable de los cinco concejales del grupo municipal O.E.O. y la abstención de los dos concejales del grupo EH-BILDU:

<u>PRIMERO</u>: Aprobar la convocatoria de

erabilera anitzeko zuzkidura-eraikin bat eraikitzeko egindako proiektuko obren lizitazio-deialdia onartzea.

BIGARRENA: Proiektu honetan jasotako obren kontratuaren lizitazioa eta ondorengo esleipena arautuko dituen baldintza ekonomiko administratiboen agiria onartzea.

licitación de las obras del Proyecto de construcción de un edificio dotacional multiusos con certificación passivhaus en el A.U. 1 Herrigunea, redactado por Soroa Arquitectos S.L.U

SEGUNDO: Aprobar el Pliego de cláusulas económico administrativas que ha de regir la licitación y posterior adjudicación del contrato de las obras recogidas en este Proyecto y que obra en el expediente.

*** Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Udal honen arteko lankidetza-hitzarmenaren onarpena, etxez etxeko laguntza-zerbitzua finantzatzeko.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak erakunde horren eta Olaberriako Udalaren arteko lankidetza-hitzarmenaren proposamen berri bat bidali du, mendekotasuna duten pertsonei eta udalerri horretan arreta jaso dezaketen beste kolektibo batzuei eskaintzen zaien etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren foru-finantzaketarako baldintzak zehazteko. Hitzarmen hau 2018an sinatutakoaren jarraipena da, bere indarraldia amaitu baita.

Testua udal-kideei aurkeztu zitzaien joan zen Batzorde Informatzailean, berau aztertu zezaten.

Ondorioz, zera erabakitzen da aho-batez:

LEHENENGOA.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Olaberriako Udalaren arteko lankidetza-hitzarmena onartzea, etxez etxeko laguntza-zerbitzua finantzatzeko, hitzarmen horren I. eranskinean jasotako hobekuntzekin

*** Aprobación del convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y este Ayuntamiento para la financiación del servicio de ayuda a domicilio.**

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha remitido una nueva propuesta de convenio de colaboración entre esa institución y el Ayuntamiento de Olaberria, al objeto de determinar las condiciones de financiación foral del servicio de ayuda domiciliaria que se ofrece a las personas calificadas como dependientes así como a otros colectivos que puedan ser objeto de atención en este municipio. Este convenio es una continuación del suscrito en 2018 y cuya vigencia ya ha vencido.

En la pasada comisión informativa se presentó el texto a los corporativos para su estudio.

Consecuentemente, los corporativos adoptan, por unanimidad, los siguientes acuerdos:

PRIMERO.- Aprobar el convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Olaberria para la financiación del servicio de Ayuda domiciliaria, en los términos en que ha sido

batera Aldundiak bidali duen moduan.

remitido por Diputación junto con las mejoras recogidas en el anexo I de dicho convenio.

BIGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

SEGUNDO- Facultar al alcalde para la firma del convenio.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri, hitzarmenekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea.

TERCERO.- Dar cuenta a la Diputación Foral de Gipuzkoa del Acuerdo adoptado.

**Galdera eta erreguak**

Ez daude.

- **Ruegos y preguntas**

No se producen.

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 18ak eta 6 minutu direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du.**

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 18 horas 6 minutos y yo, Secretario de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**IDAZKARIA / EL SECRETARIO**

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA